

Saharako haurrei agur

Festa izango da bihar arratsaldean Plaza Berrian ekitaldi askorekin ▶ 7



Harpidedunei banatua ▶ Ostirala ▶ 2005-09-02 ▶ III. urtea ▶ 675. zenbakia ▶ www.tolosaldeko-hitza.info

Elduainek eta Lizartzak hartuko dute jaien lekukoa

GAURTIK ▶ Suziriak emango die gaur hasiera Elduaingo festei, eta Athletic-Real partidak Lizartzakoei ▶ 6

ABUZTUAN ▶ Giro onean ospatu dituzte eskualdeko herri askok urteko beren egun handiak ▶ 2-3



Saio ederra eskaini zuten dantzariak abuztuan Leitzako plazan; arrakasta handia izan zuen herritarren artean. JAIONE ASTIBIA

TOLOSALDEA ETA LEITZALDEA ▶

Oporretako argazkiekin lehiaketa antolatu du HITZA egunkariak bere harpidedun eta irakurleentzat

Hainbat sari banatuko ditu parte-hartzaileen artean; jada zabalik da argazkiak bidaltzeko epea, hilaren 23a arte ▶ 4



HITZAKO I. Argazki Lehiaketara bidaltako argazki bat. AITOR TEJERIA

TOLOSA ▶

Tolosa Sessionen jazz doinuak gaur gauean

Fronton kafetegian izango da Gau Giro 2005 itxiko duen ekitaldi berezia ▶ 5

TOLOSA ▶

Tolosa CFk Berazubín jokatu du biharkoan

Hirugarren Mailara igo denetik lehen erronka du etxean ▶ 5

ANOETA ▶

Gazte Eguna oihartzunez beteta dator aurtengoan

Gazte Asanbladak antolatu du, azken lau urteetan bezala ▶ 7

VILLABONA ▶

Bizikletan ibiltzen ikasteko parada

Ernioalde elkarteak antolatu du bi asteburutarako ▶ 7

ABUZTUKO KRONIKA ▶

Kirolak eta jaiak nagusi udan

Abuztua hilabete lasaia dela esan ohi da, berri nagusirik gertatzen ez den horietakoa; gurean festek eta kirolek izan dute protagonismo nagusia

JOXEMI SAIZAR
IMANOL GARCIA



Gatzelu. Joxe Gabirondo trontzalari gatzeluarrak Euskal Herriko txapela jantzi zuen Legorretako Aitor Esnaola bikotearekin batera eta, gainera, marka berria jarri zuten. JAGOBA MANTEROLA / ARGAZKI PRESS

HITZA argitaratu gabe izan den hilabetean izan da hainbat albiste Tolosaldean eta Leitzaldean. Nagusiak biltzen saiatu gara hemen. Kirol alorrean izan dira gehientsuenak, baina beste atal batzuetan ere gertakizun ugari izan da oporraldi garaian. Bestalde, udan faltan botatzen ez dena jaiak izaten dira. Bi eskualdeotan hainbat herrik ospatu dituzte euren jai nagusiak, eta guztietan giro ona izan da albiste.

Abuztuak 6. Denboraldi-aurrean nahiko gaizki aritu da Realak. Baina, hain justu, garaipe bakarra Tolosan lortu zuen. 0-3 irabazi zion Tolosari (denboraldi honetan Hirugarren Mailan jokatu du). Rosato, Labaka eta De Paula izan ziren golegileak. Realean Mikel Saizar eta Gari Uranga ibartarrak eta Mikel Alonso tolosarrak jokatu zuten. Igor Jauregi, berriz, ikusle gisa egon zen, lesionatuta jarraitzen baitu. Jende asko bildu zen Berazubini.

Abuztuak 10. Leitzako jaien hasierako ekitaldian, ikurrina jaso zuten udaletxeko balkoian. Joseba Azkarraga Eusko Jaurlaritzako Justizia sailburua, Unai Ziarreta EAKo idazkari nagusia eta Maiorga Ramirez Nafarroako EAKo lehendakaria izan ziren ekitaldian eta Nafarroako Ikurren Legearen kontra agertu ziren. Nafarroako Gobernuak administrazio eginbidea irekiko du ikurrina jartzeagatik. Beste elkarte autonomiko gonbidatuekiko gizaletasunaren aukera baliatuta jarri zuen Udalak ikurrina. Batasunak Aralarren jarrera hori kritikatu zuen. «era horretan onartzen duelako ikurrina Leitzaz edo Nafarroaz kanpoko zerbaite dela, UPNren tesiekien bat egin».

Abuztuak 20. Joxe Gabirondo gatzeluarra eta Aitor Esnaola legorretarra izan dira Euskal Herriko Trontzalari Txapelketako irabazleak, Burlatan (Nafarroa) jokatuak finalean. Txapela jantzi ez ezik, marka berria jarri zuten trontzalariak: 11 minutu eta 48 segundo behar izan zituzten 22 epaika egiteko, orain arteko marka sei segundotan hobetuz.

Abuztuak 21. Euskal Herriko Segat Txapelketa atzeratu egin zuten. Abuztuaren 21ean zen jokatzekoa Oiarzungo (Gipuzkoa) Pikoketa zelaian Euskal



Aduna. Haurrek ere izan zuten aukera, herriko festetan, dantzarako duten trebezia erakusteko. HITZA



Zizurkil. Festetan, goizean oilasko biltzea egin ondoren, arratsaldean oilasko jokoaren festa eta dantzaldia egin zituzten herriko gazteek. HITZA



Hernialde. Herriko festetan jo eta su aritu ziren hernialdearrak beraien artean jokatuak herri kirol saioetan. Umorea ez zitzaizaien faltan, behintzat. HITZA



Larraul. Haurrek hartu zuten gozamina jaietan beraiantzako prestatutako jolasetan. HITZA

Herriko Sega Txapelketa, baina belarra proba jokatzeko moduan ez zegoenez, atzeratu egin zuten irailera. Lau finalistetik hiru eskualdekoak dira: Juan Manuel Erasun zizurkildarra, Mikel Aranalde gazteluarra eta Jesus Mari Ormaetxea *Urki* orendaindarra. Laugarrena finalean Bixente Mitxelena oiartzuarra izango da.

Abuztuak 24. Hasier Olea indartsu aritu da txirrindularitzan. Junior mailako Gipuzkoako selekzioan aritu da txirrindulari tolosarra uda honetan. Britainian jokatu zen Ronde des Valles proban, erlojuaren kontra 9.a izan zen Belca taldeko txirrindularia. Handik etorri eta Ibarrako San Bartolome jaietako proba irabazi zuen. Ignacio Guerra bere taldekidearekin eskutik helduta iritsi zen helmugara.

Abuztuak 20. Ramon Edo 76 urteko nobillero tolosarra omendu zuen Peña Zezenak Tolosako zezen-plazan. 1949an debutatu zuen bertan eta urte askotan zehar aritu zen nobillero gisa Euskal Herrian eta Espainian. Gero zezen munduan jarraitu zuen enpresari gisa. Gaur egun Madrilen bizi da.

Abuztuak 28. Antonio Alustiza aresoarrak irabazi zuen bere txakur *Argi*-rekin jokatu berri den Nafarroako Artzain Txakur Txapelketa. Uharre-Arakilen egin zen lehiaketa. Alustiza iaioa da horrelako txapelketetan eta gustuko du bertan parte hartzea.

Abuztuak 31. Tolosako Igarando igerilekuak atek azkeneko aldiz ireki zituen hilaren amaieran. Laster irauli egingo dute eta bere lekuan etxebizitzak egingo dira. Igerilariak orain Usabalen egindako kiroldegi berrira joan beharko dute. Hain zuzen, atzo izan zen lehengo eguna jendearentzako, atek irekita izan zituelako Usabal kiroldegiak.

Abuztua. Uztailaren bukaeran eskualdetik kanpoko taldeetan ari diren futbolariak egindako erreportaiaren ondoren aldatuta batzuk izan dira. Unai Luluaga tolosarra, adibidez, Eibar Bn ari zen proba modura eta orain Hirugarren Mailako talde horrek fitxatu du. Orain arte Tolosa CFko beheko mailetan aritu da. Bestalde, Borja Aranzabe billabonatarrek ere taldez aldatu du. Orain arte Eibar Bn aritu izan da (lehenago Antiguokon) eta orain Aurrera Ondarroan ariko da, Hirugarren Mailan.



Leitza. Ikus-mina sortu zuten festetan egindako herri kirolek. JAIONE ASTIBIA



Tolosa. Reala eta Tolosa abuztuan, Berazubin. JAGOBA MANTEROLA/ARGAZKI PRESS

Balorazioak, onak

Eskualdeko toki askotan ospatu dituzte abuztuan jaiak; oporretatik itzulita, hainbat herritako balantzeak jaso ditu HITZAK

J. GOIKOETXEA

Abuztua festa garaia dela dioenari ez zaio arrazoirik falta. Izan ere, eskualdeko herri askotan izan dira jaiak pasa berri den hilabetean. Ikaztegieta, Berastegi, Areso, Zizurkil, Berrobi, Bidania, Goiatz, Gaztelu, Orendain, Leitza, Larraul, Baliarrain eta Hernialden ospatu dituzte jaiak.

Aurreko egunetako urduritasunak, festak ospatzen diren egunetako ajeak eta ondorengo atsedeen egunak igarota, hainbat herritako arduradunak pozik daude festen balorazioa egiten, HITZARI adierazi diotenez.

Adunako Udalekoek esan dutenez, festak giro herrikoi eta jator batean igaro dituzte. Iaz hainbat urtez galdurik egondako dantza soka berreskuratu zuten eta axeri dantza eta oilasko jokoa bezalako hainbat tradizio mantentzen

dituzte. Orokorrean, balorazio ona egin dute aurtengo jaiak dagokienean.

Larraulen ere jaiak oso ongi igaro dituztela jakinarazi dute. San Estebanetan izan zuten festen lehen zatia eta sanbartolomeetan izan zuten berriz ere festez gozatzeko aukera.

Hernialden ere oso balorazio ona egin dute jaien inguruan. Aurtengoen berrikuntza gisa, herritarren arteko kirolak egin dituzte, eta izan duten arrakasta kontuan hartuta, datorren urtekoak prestatzen hasiak dira. Sagardo dastaketak ere jende andana bildu zuten Hernialden.

Leitzan ere izan dituzte jaiak

abuztuan. Oso festa jendetsuak izan zirela adierazi dute, batik bat asteburuan. Txupinazoan izandako gertaera tristeak —hamar suziri lehertu zitzaizkion herritar bati eskuek tan—, ez zuten leitzarren festa grina itzali. Ekitaldi berezi gisa, koadrilen arteko herri kirolak azzimarratu dituzte (koadriletako bat familia bereko kideez osatua zegoen). Dantzariak eman zuten emanaldia ere oso arrakastatsua izan zela adierazi dute.

Baina oraindik bada aukerarik parrandarako; izan ere, asteburu honetan Lizartza eta Elduingo jaiak dira.

AMEZKETA ▶

Aurrera doa XVI. Joxean Tolosa pilota txapelketa

Aste honetan jokatu dira final-laurdenetako partidak hiru mailetan

J. GOIKOETXEA

Joxean Tolosa pilota txapelketan ari dira pixkanaka faboritoak agertzen. Izan ere, aste honetan final-laurdenak jokatu dira eta jada ez da txantxarrik izango Larrunarri pilotalekuan.

Final-laurdenetako lehen hiru partidak herenegun jokatu ziren. Kadeteetan Mitxelena sailkatu zen finalurrekoetara, Idoateri irabazita. Gazteen mailan Legarretak amore eman behar izan zuen Gorrotxaegiren aurrean. Eta nagusietan Arrutik Bengoetxeari irabazi zion eta hurrengo faserako sailkapena lortu zuen.

Atzo ere izan ziren partidak. Kadeteetan Telletxea albiturtarrak Peñas izan zuen arerio. Gazte mailan Uzku-dun eta Elurberen arteko lehia izan zen ikusgai eta maila nagusian Olazabal aresoarrak Baez II.aren aurka jokatu zuen.

Gaur eta bihar osatuko da fasea. Gaur, kadete mailan, Albarado eta Iturrioz lehiatuko dira. Gazteetan Iraola eta Mitxelenak neurtuko dituzte indarrak, eta Etxeberriak Jauregi izango du aurkari. Bihar, aldiz, NARBATE eta SAEZ de Asteasu neurtuko dira. Larrañagak Otxandorena izango du aurkari gazteetan eta Landiribarrek Baez II. izango du kontrario.

Txekorraren zozketa

Amezketako Herri Eskolaren aldeko txekorraren zozketako zenbaki saritua 1.058 izan da.

iragarki laburrak ▶

SALGAI

Furgoneta. Citroen Berlingoa salgai. 1998koa. Diesela. Egoera onean. 650 324 506.

LANA

Sukaldaria. Asteburuetarako eta oporren ordezkapenak egiteko sukaldaria behar da. Deitu 943 69 19 33.

ELOLA
beds ALTZARIAK

- Etxeko altzariak.
- Ordenagailuz egindako proiektuak.
- Armairu enpotratuak neurritan.

Tel.: 943 65 29 01
Lizardi poeta, 2
10 egiteko eta atsedeen hartzeko onena

TOLOSA

HITZA ARGAZKI LEHIAKETA ▶

Abian da oporretako argazki lehiaketaren bigarren edizioa

HITZAK hainbat sari banatuko ditu parte-hartzaileen artean; bidali zeurea ere!

IRATXE ETXEBESTE

Gaurtik hasita, oporretako argazki lehiaketaren edizio berria izango duzue eskuarte Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZA egunkariaren eskutik. Aurrekoak izan zuen arrakasta ikusita, polita iruditu zaio eskualdeko euskarazko egunkariari berriz ere lehiaketa antolatzea, zuek, harpidedunek eta irakurleek parte har dezazuen.

Aurreko aldietan bezala, oporretan ateratako argazkiak dira oraingoan ere eskatzen ditugunak. Ekaina eta iraila bitartean, udako oporretan ateratakoak. Ezinbesteko ezaugarria da hori lehiaketan parte hartzeko. Beste baldintza batzuk ere badira ezarrita: esate baterako, bidaltzen diren argazkiek datu batzuekin lagunduta behar dutela. Egilearen izen-abizenak, helbidea eta telefonoa ez ezik, irudiaren azalpen labur bat ere jartzeko beharrezkoa da argazki lehiaketan parte hartu ahal izateko.

Ordainetan, sari ederrak jarri ditu HITZAK bere harpidedunen eta irakurleen eskura. Bada finalera heltzen diren zortzi argazkien egileetatik hiruk lortuko dute oporretako argazki lehiaketako hiru sariak jasotzea. Parte-hartzaile guztien ahalegina saritu nahi izan du oraingoan ere eskualdeko euskarazko egunkariak, ordea, eta beste sari bat banatuko du lehiaketara aurkeztu bai, baina finalera heltzea lortu ez dutenen artean. Argazkiak bidaltzeko epea zabalik da dagoeneko, eta hilaren 23ra bitarte izango da horretarako aukera.

Hiru bide dituzte parte hartu nahi dutenek argazkiak lehiaketara igortzeko: posta bidez, posta elektronikoz bidez edo



Argazki ederrak bidali zituzten parte-hartzaileek lehiaketara Aste Santuko oporren bueltan: Cabo de Gatan ateratakoa da irudian ikusten dena; Jexus Bernabek bidalitakoa. JEXUS BERNABE

HITZAK Tolosan duen egoitzara etorrira egin daiteke. Hilaren 23a artean jasotzen dituen argazki guztiak emango ditu argitara egunkariak, eta erre-dakzioak zehaztutako epaimahaiak erabakitakoaren arabera finalera heltzen diren zortzi irudien artean hiru hautatu behar dituzte ondoren harpidedunek eta irakurleek, hilaren 27an hasi, eta 30era arte.

Modu guztietakoak

Irabazleen izenak urriaren 2an, igandearekin, ezagutaraziko ditu HITZAK bere orrialdeetan, eta baita irudi bakoitzaren egileak lortutako saria zein izan den ere. Gainera, parte-hartzaile guztien artean, bai eta lehiaketako irabazleak hautatzeko botoa ematen du-

ten harpidedunen eta irakurleen artean, beste bi sari zozketatuko ditu; egun horretan jakinaraziko dira bi sarituak ere.

Sarien berri ez dizue HITZAK emango oraindik, baina ederrak izango direla aurreratzen dizue. Ohiko bazkariak eta afa-riak, eskualdeko dendek eskainitako produktu sortak... Horiek guztiak eskuratzeko parada izango duzue zuen oporretako argazkiak lehiaketara bidaliz gero.

Analogikoak, digitalak eta diapositibak, guztiak onartzen dira. Hortaz, nahi duzuen moduan bidali ahal izango dituzue udako oporretan ateratako irudiak. Hori bai, digitalen kasuan gutxienez ezaugarri batzuk bete behar dira: 8 zentimetrotik gorako zabalera eta 250eko bereizmena izatea, alegia. Izan

ere, neurri horietatik behera, koe ez dute egunkarian argitaratu emateko moduko kalitate-rik izaten. Kopuru aldetik mugarik ez, eta bakoitzak nahi adina argazki bidali ahal izango ditu lehiaketara. Hori bai, egile bakoitzeko argazki bat baino gehiago publikatuko duenik ezin dezake HITZAK ziurtatu.

Ez da makala HITZA egunkariak berriz ere egin duen eskaintza. Argazkien truke sariak lortzeko aukera. Oporretako irudiak bidaltzeagatik soilik partaideek lortzen dutena ere ez da txarra: ateratako argazki berezi, polit eta hunkigarri hori argitaratuta ikustea. Irudi horietako bakoitzaren atzean hainbat momentu, istorio eta oroitzapen gordetzen dira, izan ere, beti.

OINARRIAK ▶

HITZAK abian jarri duen argazki lehiaketako oinarriak dira hauek. Baldintzok betetzea ezinbestekoa da bertan parte hartzeko:

Epeak.

▶ Argazkiak bidaltzen hasi zaitezke dagoeneko; hilaren 23a bitarte hartuko ditugu erredakzioan.

▶ Hilaren 25ean argitaratuko dira zortzi argazki finalistak HITZA egunkariaren.

▶ Harpidedunek eta irakurleek botoa emateko aukera izango dute hilaren 27tik 30era, gustuko den argazkia aukeratzeko.

▶ Urriaren 2an, igandearekin, argazki irabazleak publikatuko ditu HITZAK.

Baldintzak.

▶ Udako oporretan ateratakoak behar dute izan lehiaketara bidalitako argazkiek: ekaina eta iraila bitartean egindakoak.

▶ Paperean, diapositiban eta formatu digitalean onartzen ditugu argazkiak. Digitalek, gutxienez, honako ezaugarriak izan behar dituzte: 8 zentimetroko zabalera eta 250eko bereizmena.

▶ Argazkierekin batera, hainbat datu zehaztu behar dira: egilearen izen-abizenak, helbidea eta telefonoa batetik, argazki hori noiz eta non egin den bestetik, eta hitz gutxitan, irudiaren azalpen bat azkenik.

▶ Jasotako argazkiak arxiboan gordeko ditu HITZAK, eta eskubidea izango du behar dituenaren erabiltzeko.

Nora bidali.

▶ Posta elektronikoa: tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info (lehiaketarako dela jarri).

▶ Posta arrunta: Argazki Lehiaketa. Tolosaldeko eta Leitzaldeko Hitza. Araba etorbidea 5, atzea. 20.400. Tolosa.

▶ HITZAK Tolosan duen egoitzara ekarri: Araba etorbidea 5, atzea. Tolosa.

- ▶ hilberriak
- ▶ urteurrenak
- ▶ eskertzak

Gipuzkoan
50.000
etxetara

ESKELAK
19:00ak arte hartzen dira
Telf.: 943 65 56 95
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info

HITZA guztietan prezio beragatik

TRAFIKOA ▶

Hiribusaren ordutegi eta geltoki berriak

Tolosako hiribusak berrikuntzak sartu ditu bere zerbitzuan. Horrela, gaurtik aurrera ordutegia 08:30etik 21:00etara izango da jarraian, eta larunbatetan 08:30etik 21:30era. Iurramendi egoitzara doan autobusa Musika Eskolatik abiatuko da 10:00etan, 12:30ean, 16:30ean eta 19:00etan. Ibilbidean geltoki berriak izango dira Martin J. Iraolan, Usabalgo kiroldegian eta Usabalgo industrialgunean.

KIROLA ▶

Tolosa eskubaloitaldearen deialdia, gaur

Tolosako eskubaloitaldeak jubenil eta junior mailetan aritu nahi dutenentzat deialdia luzatu du. Interesatuak gaur bertan dute hitzordua, 19:00etatik aurrera, Eskolapioen kiroldegian.

TELEFONOAK ▶

Larrialdiak. ((112)) Osasuna.

- ▶ **Alegialdea.** Osasun z.: 653212
 - ▶ **Anoeta-Alkiza-Hernalde.** Medikua: 65 23 39
 - ▶ **Asteasu.** Medikua: 692423
 - ▶ **Baliarrain.** Medikua: 889003
 - ▶ **Berastegi-Elduain.** Medikua: 683361
 - ▶ **Bidegoian.** Medikua: 681134
 - ▶ **Ibarraldea.** Osasun etxea: 672411
 - ▶ **Ikaztegieta.** Medikua: 653329
 - ▶ **Irura.** Osasun zentroa: 690720
 - ▶ **Leitza.** Osasun z.: 948 510800
 - ▶ **Orendain.** Medikua: 655595
 - ▶ **Orexa.** Medikua: 682228
 - ▶ **Tolosa.**
 - ▶ Anbulatorioa, larriald: 461111
 - ▶ San Esteban: 006800
 - ▶ Gernikako arbola: 006900
 - ▶ Amarozk disp.: 672637
 - ▶ Asunzion Klinika 675799 - 67 53 90 (larrialdiak)
 - ▶ DYA: 672536
 - ▶ Gurutze Gorria: 674888
 - ▶ **Villabona.** Anbulat.: 006970
 - ▶ **Zizurkil.** Aiztondo zerb.: 693930
- Garraioak.**
- ▶ Renfe: 902 24 02 02
 - ▶ Donostiako autobusa: 361740
 - ▶ Tolosaldea bus: 650621
 - ▶ Leitzaran autob.: 948 221015
 - ▶ Taxia: 670420
 - ▶ Taxia (Leitza): 608 873016
- Besterik.**
- ▶ Ertzaintza: 538820
 - ▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675858
 - ▶ Tolargi: 650016
 - ▶ Iurramendi egoitza: 670325
 - ▶ Tolosa gasa: 675320

KIROLA ▶

Lehen hitzordua etxean, Hirugarren Mailan daudenetik

Agurain taldea izango du aurrez aurre Tolosak bihar 17:00etan Berazubín, Ligako bigarren jardunaldian



Tolosa taldeko jokalariek eta entrenatzaileak, uztailen, Berazubín eginiko aurkezpenean. LEIRE MONTES

NOELIA LATABURU

Eskoletan, lantokietan, saltokietan... Gehienentzat opor garaia amaitu da eta Tolosa C.F. taldeko mutilak ere hasi dira dagoeneko lanean. Uztaila amaieran hasi zituzten, hain

zuzen, denboraldi-aurreko entrenamenduak «gogotsu eta ilusio handiz», Hirugarren Mailara igo berri den taldeko entrenatzaile Jose Manuel Luluagak jakinarazi duenez. Bihar izango dute Berazubín, zaletu guztien aurrean, epe honetan

eginikoak erakusteko aukera, 17:00etan Agurainen aurka jokatuko duten neurketan, Ligako bigarren jardunaldian. Berdegunera irabaztera aterako direla baieztatu du entrenatzaileak, «gure helburua jardunaldiz jardunaldi lortu behar

baitugu». Oraindik goiz da balarazioak egiteko, baina urte gogorra izango dela aurreratu du Luluagak. «Hirugarren Maila gogorragoa dela nabaria da, batik bat fisikoki eta jokalarien kalitateagatik; gainera, jokoa gogorragoa da».

Haatik, Tolosakoek beldurrik gabe egingo diote aurre maila eustearren erronkari. Gehienbat Tolosaldeko gaztek osaturiko taldea izatearen garrantzia nabarmendu nahi izan du entrenatzaileak. «Gazteek ilusio handia dute eta gure konfiantza osoa eman nahi diegu». Horrela, Eneko Naldaiz eta Iban Agirrezabal jubenilak taldean ariko dira aurten, eta Gilermo Zabalak ere bertan entrenatzeko aukera izango du. Bestalde, zaletuak zelaira gerturatzeko garrantzitsua dela adierazi du Tolosako entrenatzaileak. «Zaletuak erakartzea gure lana da, joko ona eskainiz, eta jokalariek taldearen alde egiten duten ahalegina aintzat har dezaten espero dugu».

Estreinaldiarekin «pozik»

Lehen neurketa iragan larunbatean izan zuten urdinek etxetik kanpo, eta puntu garrantzitsua eskuratu zuten. «Denboraldiko lehen partida galtzen ez hastea garrantzitsua da, eta konfiantza ere eman digu lehen puntuak», azaldu du Luluagak. Taldea ondo arituzen eta fisikoki maila ona erakutsi zuten. Teknikoki ere talde «gaztea eta polita» dela adierazi du entrenatzaile urdinak. Orain arte «oinarri fisikoa» lortu dutela azaldu du, baina oraindik alor askotan zer hobetu badutela jakinarazi du. «Liga oso luzea baita».

KULTURA ▶

Tolosa Session taldearen jazz doinuak Gau Giro 2005eko azken saioan

Tolosarrek osaturiko taldeak gaur 22:30ean eskainiko du kontzertua, Fronton kafetegian

N. LATABURU

Uda guztian gauak alaitzen aritu ostean, gaur amaituko da Gau Giro 2005, tolosar kutsuarekin, gainera. Izan ere, herritarrek osaturiko Tolosa Session taldeak emanaldia eskainiko du Fronton kafetegian, 22:30ean.

Mixel Longaron (bateria),

Juantxo Zeberio (pianoa) eta Txema Garces (kontrabaxua) dira partaideak, nahiz eta gaurkoan Jabi Area ariko den baterian. Musikariek azaldu dutenez, jazz doinuak dira nagusi euren abestietan, estilo hau baitute «gogokoan». Kontzertuan entzun ahal izango diren abesti gehienak Zeberio eta Garcesek eginikoak dira.



Mixel Longaron, Juanxo Zeberio eta Txema Garces. HITZA

OSTATUA

- Eguneko Menua (aste guztian, larunbat eta igandea ezik)
- Karta aste guztian zehar

Urrope plaza • Leaburu
Tel.: 943 67 15 48

ELDUAIN ▶ JAIK



Pasa den urteko jaietan pailazoek eskainitako emanaldiak jende ugari bildu zuen pilotalekuan. GARAZI AZKUE

Ekitaldi andana gaurtik Elduainen

Datorren irailaren 8a bitarte ekitaldi ugari izango dira; autobusa antolatu dute bihar gauetan Tolosatik joateko

IÑIGO TERRADILLOS

Abuztua amaitu den arren ezin esan herrietako jaiak amaitu direnik, eta horren adibide dira Andra Mari jaiak. Horrela, Elduainen gaur hasi eta datorren irailaren 8a bitarte hainbat eta hainbat ekitaldiz gozatzeko aukera izango dute bertakoek nahiz bertara gerturatzeko direnek.

Urdelar Biltokiak antolatuta, eta biltokian bertan, herri afari alternatiboa egingo dute gaur. Egitarau ofiziala, berriz, biharatik aurrerakoa izango da. Bertan, Andra Mari egunean egingo den herri bazkaria azpimarratu nahi izan dute. Bestalde, aurten ere, autobusa antolatu dute Elduainera joateko biharoko Diskojaierako, 23:30ean Tolosako San Frantziskotik. Antolatzaileek jende guztia animatu nahi dute herriko jaietara.

ANDRA MARI JAIK ▶ EGITARAU

Gaurtik datorren osteguna bitarte askotariko ekitaldiak izango dira Elduainen.

Egitarau alternatiboa.

GAUR

21:00. Elduaingo Urdelar Biltokiak antolatuta herri afari alternatiboa.

Egitarau ofiziala.

BIHAR

18:00. Jaien hasiera suziriekin eta kanpaiekin.

18:30. Poxpolo eta Mokolo pailazoak.

Ondoren. Txokolatada Urdelar Biltokian.

24:00. Abiba Diskojaia, Donosti DJren eskutik.

ETZI

10:00. Meza Nagusia.

11:00. Sardina jatea, sagardo eta txakolinarekin.

12:00. Profesionalen arteko pilota partidak.

15:00. Puzgarriak pilotalekuan.

18:30. Berastegiko motozerrariak.

20:00. Izer eta Alabierren eskutik musika emanaldia.

IRAILAK 8

(ANDRA MARI EGUNA)

12:30. Meza Nagusia.

14:00. Herri bazkaria Kontzeju tabernan musikaz alaiturik.

18:30. Aiako Harpaularien erakustaldia.

19:30. Gorriri eta bere animaliak.

20:00. 36. Toka Txapelketa.

24:00. Laiotz taldearekin emanaldia.

LIZARTZA ▶ JAIK

Herri Borondatearen aldeko jaiak gaurtik

Hilaren 8a bitarte adin guztiei zuzenduriko ekitaldiez osaturiko egitaraua antolatu dute



Pasa den urteko jaietako une bat. I.TERRADILLOS

I.TERRADILLOS

Lizartzan, garai bateko ohiturei jarraituz, Herri Borondatearen aldeko jaiak antolatu dituzte. Gaur hasita eta hilaren 8a bitarte, askotariko ekitaldiz osaturiko egitaraua antolatu dute herritar guztien eta bertaratzaren direnen gozamenarako.

Gaurko antolatu dituzten ekitaldien artean 19:00etan pilotalekuan izango den areto futbol partida azpimarratu behar da; herriko gazteak ariko dira, Athletic zaleak Real zaleen aurka. Gainerako egunen artean, berriz, igandea izango da egun garrantzitsuena. Olaetxea eta Mendinueta Sukia eta Arzallus pilotarien arteko partida ikusteko aukera izango da eguerdian, eta arratsaldean, berriz, herri kirolak izango dira; besteak beste, sokatira, trontzariak eta harri-jasotzaileak. Aipatzekoak dira ere herriko danborrariak, txistulariek, trikitilariak eta gaiteroek eskainiko dituzten emanaldiak.

Antolatzaileek jende guztia gonbidatzen dute jaietara.

EGITARAU ▶

GAUR

19:00. Athletic-Real pilotalekuan.

20:30. Kalejira Karobitxulo trikitilari taldearekin.

21:00. Koadrilen arteko afaria.

24:00. Txupinazoa eta danborrada.

1:00. DJ Zezen Gorri.

BIHAR

10:00. Goiz deia Lizardi txistulari taldearekin.

17:00. Ume jolasak.

19:00. Sagardo dastaketa.

24:00. Manifestazioa Amnistiaren bidean *Euskal Presoak E.H.*

24:30. Kontzertuak: BKBO eta Raiz-X.

Ondoren. Maitana eta Aiora trikitilariak.

IRAILAK 4

10:00. Goiz deia Karobitxulo trikitilariarekin.

12:00. Pilota partida.

13:00. Otsalar herriko dantza taldea.

14:30. Zikiro jatea.

Ondoren. Etxabe anaiak.

19:00. Herri kirolak.

IRAILAK 7

20:30. Kalejira Karobitxulo trikitilariarekin.

IRAILAK 8 (HELDUEN EGUNA)

10:00. Goiz deia Lizartzako Gaiteroekin.

12:00. Poteoa eta hamaiketako Txirrita elkartean.

14:30. Bazkaria txiste kontalariarekin Jose Mari jatetxean.



ELDUAINGO UDALAK

**HERRIKO JAIETARA
GONBIDATZEN
ZAITUZTE
EKITALDI UGARI,
MUSIKA MUNDIALA
AFARI ZEIN BAZKARI
GOXO GOXOAK**

**KONTZEJU
TABERNAK**



▶ TOLOSALDEKO HITZA.INFO

Eztabaida. Sar zaitetz eskualdeko egunkariaren web orrian eta eman ezazu zure iritzia estreinatuta berri duten Usabalgo kiroldegi berriaren inguruan. Zer iritzi duzu dituen instalazioez? Eta ordaindu behar diren prezioez? Zerbait faltan edo soberan duela iruditzen al zaizu?

LEITZA ▶ KIROLA

Leitzako I. Txapelketa hastear da

Adin guztietako pilotariak ariko dira jokoan; hilaren 25ean finalak

JAIONE ASTIBIA

Gaur bertan da hastekoa Leitzako I. Pilota Txapelketa. Amazabal pilotalekuan, 19:30etik aurrera jokatuko diren partiduekin, kadete, jubenil eta senior mailetakoko partiduekin hasiko ere.

Aurreneko aldia da horrelako pilota txapelketa bat Leitzan antolatzen dutena, halaxe eman zuten aditzera behinik behin, atzokoan, Leitzako Pilota Eskolako arduradunek, txapelketa honen antolatzaileek, hain zuzen ere. Euren hitzetan, «aspaldiko nahia zen horrelako zerbait egitea», eta «hasteko, hiru jardunalditako txapelketa motx bat antolatu dugun», zioten. «Garrantzitsuena hasia omen da eta», ziotenez. Bertako pilota eskolako jokalariek herri herri ibiltzen dira urtean zehar eta «etxean jokatuko aukerarik apenas izaten duten», argitu zuten. Egitasmo honekin, «etxean jokatuko aukera eman nahi zaie pilotariei eta baita bertako jendeare ere, erakutsi nahi zaie, herrian jendea mugitzen dela kirol honen inguruan; eta bestalde, etorkizuneko pilotariak ezagutzera emateko bidea ere bada txapelketa bat. Hori da egin nahi dena», azaldu zuten. «Guretzat gainera, lan berria da eta alde horretatik ere erronka da».

Horrela, maila bakoitzean zortzi bikotek hartuko dute parte, eta «zozketaz» ateratako arerioekin jokatu beharko dituzte dagoneko «final-laurdenak» izanen diren partiduak. Handik aurrera, bikote irabaztunak igaroko dira hurrengo fasera.

Kadete, jubenil eta senior mailetakoko partiduak ostiralean jokatuko dituzte, gaurtik



Bi pilotari, Leitzako plazan lehian, artxiboko irudian. J. ASTIBIA

hasita; gazteenek, berriz, benjamin, alebin eta infantilek, alegia, larunbatetan, 09:30ean, hauek ere bihartik hasita. Kontuan hartuta jaialdi bakoitzean hiru mailetakoko partiduak jokatuko omen dituzte, esan behar da lehen faseko partiduak bi asteburu jarraituz burutuko dituztela. Edozein moduz, hiru urrats, finalaurdenak, finalerdia eta finala egingen dituzte, Leitzako I. Pilota

Txapelketa honi hilaren 25eko finalekin emanen diotelarik amaiera.

Txapelketa honetan Euskal Herri osoko pilota eskoletako pilotari afizionatuek hartuko omen dute parte, aditzera eman zuten, eta irabaztunek txapela eta kopa jasoko omen dituzte. Nabarmendu zuten, bestalde, kadetetatik gorakoek «ordainsaria» ere izanen omen dute.

TOLOSA ▶

Saharar festa egingen dute bihar Tolosan, Plaza Berrian

Eskualdera etorri diren haurrei ekitaldiz beteriko agur-festa eskainiko diete

J. ASTIBIA

Bihar larunbata, Saharar Festa egingen du Tolosaldea Sahararekin elkarrekin, bertako Udalaren laguntzarekin. «Eskualdera etorri diren haru sahararrei agurra emateko» asmoz, atzo ohar batekin jakitera eman zuten.

Uda Tolosaldeko herrietan egin duten haurrei kanpamenduetara itzultzeko tenorea iritsi zaiela eta, agur-festa egingen diete. Horretarako Plaza Berrian haima bat jarriko dute, bertan tea edateko aukera izanen delarik eta arratsalde parterako, berriz, haur-jolasak antolatu dituzte. Bitartean, 14:00etan, herri bazkaria ere egingen dute. Bertan parte hartzeko txartelak erosi nahi izanez gero, Laier, Iratxo eta Ikatza tabernetan hartzeko gonbaita egin dute antolakuntzatik.

ANOETA ▶ GIZARTEA

Oihartzunez betetako Gazte Eguna izanen dute biharkoa anoetarrek

Gazte Asanbladak herritar guztiei bertan parte hartzeko deia egin die

J. ASTIBIA

Anoetako Gazte Asanbladak Gazte Eguna antolatu du biharko herrian, azken lau urteetako oihuturari jarraiki, eta beste behin ere, «oihartzunez» betetako eguna antolatu ere, «udari amaiera emanez», beste ikasurte berri bati indarrez ekiteko asmoz.

Horrela bada, «oihartzuna, ondo pasaz gure ametsak eta errealitateak gauzatu nahian, irudimenari bidea emanez, datozen egiteko adarretatik helduz, Anoetako herriari alternatiba eskainiz, eta belaunaldi berriei, antolakuntza eta auto-gestioaren deia darra zabalduz!» dio aurtengo Gazte Festaren leloak eta bertan parte hartzeko dei egin diete heldu,

haur eta gazte guztiei, egun horretarako antolatu dituzten ekitaldietara joateko gonbidapena egingez. Izan ere egun beteko egitaraua antolatu baitute, bai ikusteko bai zuzenean parte hartzeko ere.

Eguna urteko balorazioa egingez eta hurrengorako egitekoak zehaztuz hasiko badute ere, jai-giroa nagusituko da gerora eta modu batera edo bestera, zertan ibilia izanen da. Tartean da udan jokatu den frontenis txapelketako finala, edo «gaztetxeen defentsan» egingen duten kalejira, edo gauean Gazte Asanbaldako futbol taldearen alde egingen duten jaialdia, Zi-zaze eta The Solanos taldeen kontzertuarekin.

Horrelako egunetan izan ohi diren moduan otorduak ere ez

EGITARAUA ▶

- 10:00.** Gosariatz lagundurik, urteko balantzea eta aurrera begirako ildoak.
- 12:00.** Sagardo dastaketa.
- 14:00.** Gazte bazkaria.
- 16:00.** Joku parte-hartzaileak.
- 18:30.** Fronteniseko finala.
- 19:30.** Kalejira.
- 21:00.** Gazte afaria.
- 23:00.** Kontzertua eta birrisklas.

dira faltako, eguerdiko paella-darekin eta gazte afariarekin. Izen-ematea Itzulin egin behar da. Ekitaldiak bukatu arren, ordea, gauean zehar «txirris-klas» izanen dute, nahikoa eta denentzat.

VILLABONA ▶ GIZARTEA

Bizikletaz ibiltzen ikasi nahi duenak, aukera

Ernioalde elkarteak antolatu du ikastaroa

J. ASTIBIA

Bihar-etzitarako eta hilaren 9-10erako bizikletan ibiltzen ikasteko ikastaroa antolatu dute Villabonan, «haur eta helduei zuzendua eta doan», ordu eta erdiko saioekin. Eskolak 11:30ean hasiko dira, Errebote plazan, inguruko zazpi udalerriri biltzen dituen Udaltalde 21-Ernioalde talde antolatzaileak azaldu duenez.

Ikastaroan parte hartu nahi duenak gaur du izena emateko azken aukera. Horretarako nahikoa da 639 71 13 37ra deitzea. «Izena emateko garraiz ibiltzea komenigarri» litzatekeela azaldu dute, «taldeak egiteko eta aurretik jakitea egokia delako». Hori bai, norberak eraman beharrekoa da

lantresna, alegia, bizikleta. Ikastaroa «European Mugikortasun Iraunkorraren Astea» dela eta antolatu dute, «hilaren 16etik 22ra egingen dugun ekitaldien aurrekari modura».

Lizardi
inmobiliaria

TOLOSA (Laskorain) 90m² pisua berriua eta altzariek. **TOLOSA** (Nagusia) 140 m² duplexa berriua eta altzariek. **TOLOSA** (Santa Klara) 70 m² ko pisua berriuzko. **TOLOSA** (Geltoki alde) Eraikuntza berria. Informazioa pertsonala. **ORDIZIA.** Etxe atxikia, txokoa, garajea 2 kotxerentzat, 4 logela, terraza eta jardina. **ORDIZIA.** Etxe atxikia, txokoa, garajea 2 kotxerentzat, 4 logela, terraza eta jardina. **ESTELLA.** Etxe lorategiarekin urbanizazio pribatua. Igerileku, frontoia. **Samaniego, 1 • TOLOSA**
Tel.: 943651122 • Tel.: 679842785

Harpidedunei banatua ▶ 2005eko irailaren 2a, ostirala ▶ III. urtea

GAURKO EGURALDIA



23



17



943 30 43 46



(zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko...)



943 30 43 46



943 30 43 46



943 30 43 46



943 30 43 46



943 30 43 46



943 30 43 46



943 30 43 46



943 30 43 46



943 30 43 46



943 30 43 46

AGURRAK ▶



URTE ASKOAN
 Naroa Mendez (Anoeta), Alzo 6 urte.
 Unai, aitabo eta amaboren partetik.



URTE ASKOAN
 Jokin Martin Kortajarena (Zzurkil).
 Gaur 5 urte. Muxu pottolo bat familiaren eta, batez ere, Haritz, Harriet eta Unaiaren partetik.

URTE ASKOAN, HAIMAR!
 Beti bezain jator ta tinko jarraitu! Zure bi sorginboak ikaragarri maite zaitugu! Asko zaindu, aitabo, eta eutsi goiari. Ekiñe ta Olatz.

AGENDA ▶

DEIALDIK

Elduain. Hilaren 8an egingo den herri bazkarirako txartelak salgai dira, 20 eurotan. Izen-ematea, udaletxean.
Tolosa. 1955. urtean jaio eta aurten 50 urte betetzen dituztenen festa ari dira prestatzen azaroaren 12rako. Informazioa: 650 69 35 40 (Santi Belloso), 630 90 80 45 (Joaquín Odriozola) eta 669 82 88 18 (Angel Garcia) zenbakietara deituta.
Villabona. Txirriinduan ibiltzen ikasteko ikastaroa irailaren 3an hasiko da, Udaltalde 21 Ernioaldea taldeak antolatuta, Mugikortasun Iraunkorraren

Europako Astea dela eta. Informazioa: 639 71 13 37an eta 943 69 25 36an.

MUSIKA

Tolosa. Tolosa Session, Gau Giro-n: Tolosako musikariaren jazz emanaldia: Txema Garces (baxua), Javi Area (bateria) eta Juanxo Zeberio (pianoa). 22:30ean, Fronton kafetegian.

JAIK

Elduain. Herri afari alternatiboa. Urdelar Biltokiak antolatuta, biltokian bertan, 21:00etan.
Lizartza. Lizartzako Herri

Borondatearen Aldeko Jaiak. 19:00etan, Real-Athletic, frontoian; 20:30ean, kalejira Karobitxulo trikitalari taldearekin; 21:00etan, koadrilen arteko afaria; 24:00etan, txupinazua eta danborrada; 01:00etan, DJ Zezen-Gorri Puff!

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur
Tolosa. Olarreaga, J. Martin Jose Iraola, 10. 943 67 24 38.
Leitza. Plaza, M. Elbarren, 36. 112.

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



URTE ASKOAN
 Lizartzako zure familia. Maite zaitugu, Haimar.



URTE ASKOAN
 Lizartzako zure laguneren partetik. Zorionak, Haimar!



URTE ASKOAN, HAIMAR
 Orendaindik Meaux arteko muxu iraultzaileak. Jo ta ke, laster arte.



URTE ASKOAN, HAIMAR
 Hurrengo bazkarirako txanpaina zure kontu. Muxu handi bat. Maite zaitugu.